

ANTONIO CASADO DA ROCHA

ESKU EZKERRAZ

Hitzaurrea: Angel Erro



Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren diru-laguntza jaso du

© Antonio Casado da Rocha

© Utriusque Vasconiae

Lehen argitaraldia: Donostia, 2011ko apirila

ISBN: 978-84-938756-2-6

Azaleko irudia: Pernan Goñi

Azalaren diseinua: A & R de Gorostarzu

Lege-gordailua:

Diseinua eta maketazioa: P.I.A.

UTRIUSQUE VASCONIAE - Ategorrieta Hiribidea, 3-3.

20013 Donostia. Tel.: 943-270433

Iparraldean: 0033547640386

Banatzaileak:

BITARTE – 31195 Berriozar (Nafarroa).

Tel.: 948-302239

JAKIN – 64100 Baiona (Lapurdi)

Tel.: 05592232

www.utriusque.com

Debekatuta dago, legean aurrikusitako kasuetan izan ezik, liburu honen erreproduktzioa, banaketa, komunikazio publikoa eta eraldaketa egitea jabetza intelektuala duten titularren baimenik gabe. Aipatutako eskubideak haustea jabetza intelektualaren kontrako delitutzat har daiteke (Kodigo Penaleko 270 art. eta ond.)

esku biak behar ditut
(J. Sarrionandia)

bakarrik zera: nahi duten
hizkuntzaz,
ezina esan dezatela
(M. d'Ors)

AURKIBIDEA

<i>HITZAURREA</i>	7
SATORRAREN MENDIAK	15
HARRITXOAK AHOAN	37
ZIRIMIRIA ETA SARGORIA	61
EUSKAL POETAK EUSKALTEGIRA	81
ESKER ONAK	103

POETEN LEHEN MINTZAIRAN

El arte es breve
(con diecisiete sílabas
se salva el mundo)

y la vida es muy larga
hasta que va y se acaba.

Nire burua gogora dezaket Antonio Casado da Rocha-ren gaztelaniazko poema bilduma bat irakurtzen, gogorapenarekin batera tokia ere badatorkit, eta gogoan dut inbidiaz (poetak *Poetika ttipiak* poeman dioenez, “begirune seinalerik handiena”-z) neure kolkorako itzultzen nituela olerki horiek, ez dakit euskarari ala neure barneko euskal irakurleari eskainiz, haiengan miresten nuen hainbat gauza ez ohi dudalako maiz aurkitu: asmamena, goxotasun ironikoa, eguneroko gai eta osagai arruntei erreparatu eta begi zein hitz zorrotzaz sakon bilakatzeko trebetasuna, bertso-lerroaren eta hitz zehatzaren sena, zangalatrau egokiarena. Holako euskal olerkari baten gogoz gelditu nintzen.

Olerki horiek, nik bakarrik une hartan gozatu ahal izan nituenak, euskaraz ez, baina beste batzuk bai, hauek, eskaintzera dator Casado da Rocha, gaztelaniazko hainbat sari eta liburu (*Filósofos y películas* –2008– edo *Quién me mandaría a mí* –2009–) argitaratu ondoren. Bide ezaguna albora utzita, jorratu gabeko alorrera dator, lur gaitz eta haitzez josia. Irakurleak uneotan esku artean duen liburu honek berritzen ditu ama hizkuntzan atzeman nizkion bertute guztiak. Antonio poeta aire garbi zorrotzaren eta hai-

zekirri lurrinduaren artean higitzen da, ipartar zerumuga zabaleko hotz araztailearen eta lorategi zainduaren artean – lorategia, oximoron gorena, naturaren artea, hemen haiku burudunetan eta tanka kateatuetan maiz aletzen dena. Naturaren elementuek lerro bakoitzean taupada egiten dute, baina, sumendi bat bezain mehatxagarri, natura ez dago besterendua; zenbaitetan ezkututzen da (baina hala ere egiten du jauzi), gazela bat bezala, ez metaforikoki zauriturik, haurrentzako marrazki bizidunen artean ikusarazita (*Hello Kitty* poeman); besteetan, indarberritzen du, hodei artean paisaia batek edo korrika egiten duenarentzat euriak bezainbeste, saihestezin, ustekabeko. Naturaren indarrak kontenplaziozko egoerara eramaten du poeta, “banintz bezala nago”.

Antonio Casado da Rocha poeta behatzaileetakoa da, irazten duen idazlea, hizkuntzaren zaintza lan ezinbestekoa buruturik. Batzuetan bereizi nahi izan da sortzen eta aurkitzen duten poeten artean. Lehendabizikoek bi mendetako prestigioa dute aurretik eta nagusitasuna aitortze-ra makurtuta sentituko da asko oraindik ere. Bigarrenak beharrezkoagoak zaizkigu. Adierazpide ezagunaren ustekabea, esaten dugun eta ez dakigun mezua berreskuratzen dutelako. Eguneroko topaketa poetikora gerturatzen gaituzte. Esanahitsua oso, ildo horretan, *Bide Argitsua* poema, zeinean hegazkineko zerbitzariaren hitz xahutuetan, behin eta berriz eskukatuetan, oraindik dizdiz egiten baitu hondar poetiko ezusteko batek, kasu egitera lipar batez argi egiten digunak. Irakurlearen garaiotan, begirada zehatzak ere sortu egiten duelako. Olerki hori, ez alferrik, amaitzen da adieraziz “hegazkinak altxatzen gaituela // itsatsita daukagun lurretik / eta luraren beldurretik”. Egiteko poetikoaren metafora ederra. Eta, izan ere, Antoniorengan

poesia hegazkin bat da, liburuan errepikatzen den irudia. (“Oinez ibiltzeko erokeria / etzanda hegan ez egitea”). Ez da bera lehena poesia garraibideetara igoarazten. Castillo Suarezek autobusaren metafora (barka erredundantzia) maiz erabili izan du, dudarik gabe, hitzaren etimologia-gatik beragatik, izan ere, Michel de Certeauk *L’Invention du quotidien*-en aipatzen duenez, “gaurko Grezian, garraio publikoko ibilgailuei *metaphorai* deitzen zaie. Lanera edo etxera joateko, *metafora* bat hartzen da”. Irakurle bakoitzak erabaki beharko du irakurriz noraino eta nola iritsi nahi duen.

Ez da abioiarena orrialdeotara, oharkabean bezala, agertzen den poesiari buruzko gogoeta bakarra: esaterako, aurreku dantzaren higidura eta birek, inpentsan, poesiaren nolakotasunaren berri dakarte, “una ceremonia esencial y repetitiva” (edo, nahiago bada, “a ceremony both essential and repetitive like poetry itself”), eta harri koskor honek, urmaelera jaurti baino erortzen utziak, bere oihartzunak eta uhinak eragiten ditu, *Sub-18* izeneko poeman bezala: “Ardo berbera / eta kopa berbera. / Baina bestela”. Edozein mendetako idazle bikainaren enblema izan litekeen haiku esentzial eta errepikakor honen bekaitz naiz, ezin sintetikoago adierazten baitu azken finean betiko ardurak betiko tresnekin islatu nahi ditugula, beti bestelakoa dena, ez halabeharrez jatorrizkoa, bilatuz. Hortxe koska.

Hagitz interesgarri eta esanahitsua egiten zait software sistemai, *interface* kontzeptuari, poemek egiten dieten erreferentzia etengabea; barnealde esan ezinezkoaren gainalde atzemangarri, ulergarria. Ezin esan horrek, larrimin horrek liburu osoa kurritzen du, baina hemen gorputz berezi bat hartzen du batez ere, gizarte diglosiko batean ematen den muga idiomatikoarena, osokoari zintzotasun berria ema-

nik. Antonio Casado da Rocha euskaldunberria da, hainbat den bezala, *off the record* jakin ohi dugunez, ahots apal eta aitormen tonuan, oraindik ere badirudielako hala izateak prestigioa kendu ahal duela, testua pobretu edo ezbaian jarri; ez da harritzekoa beldurra, konbertituaren armairua, filologia literaturtasunaren eta ia denaren gainean paratzen duen gizarte batean. *Esku ezker*raz honen ostean, atsekabez baino ezingo dira irakurri aurreko liburu eta egile askoren disimulu eta imintzioak; azken buruan, idazleak, poetak bere nitik (bere “betiko hardware”-tik) eraiki behar badu, ahalik eta itxurakeria gutxienarekin, hitza, ez harri betiberdinez, esan beharko luke, baizik eta irakurlearen bidera irteten den “xaboizko punpuila” zalantzati eta hauskorrez.

Egunen batean euskara ikasi genuenok hizkuntzari, bereziki haren literaturari, egin diogun ekarpena iker-tuko bide da. Ez du orduan hutsala emango Sarako Eskolaren inauguratzaileak, Esteve Materrek, zera esan izana: “Mire-tsiko duzue agian nik, Euskal-herriko ez naizelarik, euskaraz eskiribatzeke ausartziaren hartzea. Baina baldin konsidera badadi, edirenen duzue ezte la gauza hunetan ausartziarik, eta ez zer miretsirik”, ezta XX. mendearen bigarren erdiko poeta nagusiak, inaugurala bera ere, esan izana: “Zergatik metitu ote naiz / halako enplego txar batean? / (...) Baina zergatik? / Ez nintzen ni ederki bizi / Bilboko hirian, / gaztelaniaz?”¹. Koldo Izagirrek Xabier Montoiaren poesiaz esandakoa ere heda genezake: “euskaldunberriaren lotsagabekeriatik zerbait, jatorreria sintaktiko eta berbalaren kontra sortzen duen xarma”. Ikerlan hori abian jartzen den egunean ezingo da Antonioren poema liburu hau bazter utzi; aitzitik, hainbeste arrazoiengatik arretaz irakurtzea merezi izandakoa arreta handiagoz aztertu beharko da, poetak bere egoerari ateratzen dion etekin es-

kergaz jabetzeko. Gogoratzen digu, konparazionera, poesia ez dela hizkuntza natural bat (poetek orok diglosian dihardute), beharrezkoa da inertziatik eta poetikotzat hartutako esamolde herdoilduetatik begiratzea, “apainketa hutsalaren, artea ez denaren” kontrako lehian. Norberarena ez den denboraren aurkako borroka horretan –eskarmentuak hala esaten dit– ama hizkuntzak ematen duen segurantzia eta harrokeria bertan behera uzteak abantailak dakartza (desabantailez besteak mintzo bitez), ez soilik hizkuntza-aren eraikuntza eta zaharbertzerako, baizik eta norberaren ahots poetikoaren xerkan, poesiaren beraren garbiketarako; esaterako, erretorika, hitzei lapatu ohi zaiona, freskatuz, Casado da Rochak *Fresnos* olerkian ederki egiten duen modura, non hiztegi gabeziak bultzaturiko galdera, baliabide arranditsua bezain xahutua izan beharrean, bizigarri eta berria bilakatzen zaigun begi aurrean, lehenago gutxitan bezala, ziurgabetasun eginik: “Nola dute izena zuhaitz horiek, / fraide itxura duten pinu haiek ez, / baizik eta aurrean ditugunak / leihoa acuarium bat balitz bezala, / maiatzako haizeak (ur korronte bat) /adarrak astintzen dizkiela...”

Zorionekoak gu, euskaldunok, hau da, elebidunok, poema liburu hau irakurtzeko egokiera dugulako, eta zorigaiztokoak –poetak esaten digu– elebakarrak, poesia zer den apenas ulertuko dutelako –gehitzen dut nik eta poetak orobat iradokitzen digu–, izena eta izana adibakar, munda kanpotik emana. Elebidunarentzat, berriz, “lurraldea hiztegi bat bihurtuz, hitzak elkarri / lotuz eta besarkatuz. // Poeta baten ametsa.” Zorionekoa poema hauen izkiriatzailea, berauen bitartez buruz buru hitz egin ahal izan die-la Anna Akhmatova, Billy Collins, Wislawa Szymborska edo Fernando Pessoa mirestuei beraien lehen mintzairan. Eta zorionekoa honaino jarraitu didan irakurle eraman

handikoa, azkenengoz irakurri ahal izango duelako bila dabilena.

Angel Erro
Burlatan, 2011eko otsailaren 21ean

¹ Erantzuna, nire ustez, Gabriel Arestik berak ematen du nolabait aurreko lerroetan, “orain ikasi / behar dut / erdera” idazten duenean. Batzuetan inpresioa dut ama hizkuntza arazten eta trebatzen dugula gehienbat euskaraz euskaldunberriok.

SATORRAREN MENDIAK

You're making a mountain out of a molehill

(Esaera ingelesa)

ZENBAIT POETEI BURUZKO
ABISUA IRAKURLEARI

Baldin ez bazeneki,
Carlos Marzalek arma bat du
eta zure buruan hustu nahi.

Miguel d'Orsek zure bizitza
hobetzea espero du, tartetxo batez
ondo birpasatzen lagunduz.

Angel Errok ez du agintzen
zer sentitu, poema osatzeko
parada ere uzten dizu.

Nire aldetik, ez ezazu
halakorik espero, agian
berriketa apur bat

igogailuan,
ispilu baten aurrean, Edurnezuri
eta bere basurde bihotzaz,

edo solairu zenbakiak aztertzea
lerroz lerro

sator zuloan goazela
bidai bertikal honetan;

gero isiltasun minutu bat
eta aldika entzutea

kirrizka
nola egiten duten
orriok.

SUETENA

Badaude beti han egon diren gauzak,
katedral gotiko baten
espazio jaurtiketa bezalakoak.

Badaude jin eta joan egiten direnak,
txirristarik gabe airean
txirrista egiten duten enarak bezalakoak.

Badaude ere betirako ziruditen gauzak,
bat-batean desagertzen direnak
arrastorik utzi gabe

ez bada gure harridura
gure buruari galdetzen diogula
nola bizi izan gintezkeen
modu horretan.

FIDELTASUNA

Maitea, nire sistema eragile
bakarra zeu zara. Windows XP,
Linux edo Mac OS bezalaxe.

Nire Dokumentuak non dauden
dakizulako, Nire Irudiak.

Esaten didatenez, maitea,
sistema eragile berri-berriak
eskuragarri daude merkatuan.

Ez ditut nahi, musu-truk balira ere.
Betiko teknologiak, onenak.

ĒKOGRAFIA

Argi puntu bat
zure iluntasunean:
dir-dir eginez

babarruna, izar bat
bezain jadetsi ezina.

ALTZAIUZKOA ETA BASATIA

Eguna garbitu berria dagoela esatea
ez da nahikoa

(altzairuzko goiz basati hau
egina baita garbiketaren kontzeptua
sortu baino lehenago),

eri bati bisita egitera
nire betiko okertasunarekin
ospitalera noala esatea

agian ez da bidezkoa
baina hau da dagoena:

itxoiten dena izatea
suertatuko zaigula
ikasgai jakinaz gain

egunen bat ere izango dela
non beste batzuek jaurtiko dizkioten

oskarbi freskoari goraiipamenak.

OSPITALEEK ETA AIREPORTUEK

Zera dute komunean:
jendea horietara dator,
jendea horietatik doa.

Zeharo ezberdinak honetan:
aireportuko guztiak
(ikusten ditudan horiek)
neka-neka eginda daude
baina egoeraz aldatuz,

ospitaleko guztiak
(mediku-erizainak barne)
bizitzari tinko eutsiz
hatz-puntez bada ere.

BIDE ARGITSUA

Hodeiei so nago
esne irakiaren antzera
gainezka nola egiten duten

mendiaren gainean
alde batean itsasoa
bestean aireportua

eta *playback*ez diharduen
aurpegi margotutako azafatari
jaramonik ez diogu egiten

baina orduan zera aditu diot
*sendero luminoso por el pasillo
salida de emergencia*

eta hasi naiz ikusten
Perun ez dauden
Bide Argitsuak

gauez
ikusezinak diren
luma zurizko loreak

egunez
ikusezinak diren
izar daltonikoak

eta beti ikusten diren
pista marrazten duten seinaleak
hegazkinak altxatzen gaituela

itsatsita daukagun lurretik
eta lurraren beldurretik.

URAK DAROAZ

Ardorik gabeko festa baterako
gonbidatuak bezala
estrategia eta poetikarekin batera
egitasmo guztiak joan egin ziren,

prosa eta *eleberririk*
ere joan egin ziren
eta egitasmoak bukatu orduko
gogoarekin geratu nintzen,

gogoarekin,

gogoak asetzen baitu
(Tomás Segoviari entzun bait nion)
egitasmoek baino askoz gehiago.

LI POK ARDOA EDATEARI UZTEN DIO
BARNEALDERAKO TXANGO BATEAN

Azaroak 1:
ehiztari arropa
jantzi du lurrak.

Mundua hegazkorra da.
Mundua egonkorra da.

Errepidean:
semealaben izenak
acienporhora.

Mundua egonkorra da.
Mundua hegazkorra da.

Beilatokian:
bero-bero ditugu
begi-niniak.

ANNA AKHMATOVAREN POEMA
BATEN JARRAIPENA

*Errege gaztea ikustea izugarria izango zen
kapitainari agindu zionean: “Suntsi ezazu Tebas!”
hiria soldadu zaharraren bistan zegoela
garai eta harro, bere oroimenean bezalaxe.*

*Denari su eman! Eta banan-banan izendatu zituen
Alexandrok]
hiriaren altxorrak –dorreak, atepak, tenpluak–, munduko
loria;]
orduak bekokia argitu zitzaion, gogoa hitz bihurtu ahala:
“Dena, Poetaren etxea izan ezik.”*

Kapitaina arnasestuka itzuli zen esanez
“Ehun bat poeta omen dira Tebasen,
noren etxea salbatu behar dut
zure laudorioa idatz dezan?”

“Denei su eman! Eta baten bat ikusiko bazenu, sua
darion]
etxean sartu nahian, bere papiro ziztrinengatik
bizitza arriskuan jarrita, harexena salbatu.
Besteak erre itzazu.”

SINESTESIAK

eztizko lorak yatzuz espanak
(Lauaxeta)

eztizko estalaktitak

txakolinezko kresala

azalozko olatuak

behe-lainozko sordina

kilkerrezko zabua

gaztainazko orrazkera

haizezko eskularruak

tamarindozko laztana

laranjazko ezpainak

OPORRAK

*Esto ha sido el verano de tu vida:
ríos y bares y libros y mares*
(A. Rentería)

Bai gai burgesa
baina zein freskoa den
gure burkoa

zein biziak kolore
guztietako loreak

eta euria
zein azkar babesten den
arbolapean

(atertzen denean
arbolapean euria)

atertu orduko
bukatu dira oporrak,
gai burges hori.

BARNES & NOBLE, BOSTON UNIVERSITY

Walcott-en liburu bat ordaintzean
Euskadiko Kutxako txartelari
erreparatu dio kutxazainak.

Are you Basque?, galdetu dit.
Baietz esan diot baina ez dit sinetsi:
nire izenak ez duela euskal kutsurik

adierazten dit amerikanoak
(zuzen eta suabe, ironia barik)
adibideak eta guzti: Iker

Casillas, esate baterako,
euskalduna delakoan baitago.

GURE ERREPIDEETAN EGITEN DENA

Elur berria:
ez dago ederragorik
planeta osoan.

Erori bezain pronto
belztu eta lokaztu
egiten dena gure errepideetan.

HELLO KITTY

Bideo bat ikusi egin nahi zuen
katakume goxo-goxo batena
hainbeste nahi zuen jarri egin nion.

Telebista piztu nuen pantailak
dokumental bat isurtzen zuela
piztiei buruz.

LTDtik DVDra uhina
bideratu aurretik ikusi genuen
pantera gazela hiltzen.

GURASO MAITASUNA
(Gabriel Fitzmaurice)

*Zein hurbil dauden negarra eta algara!
Haurrak telebistan Dumbori begira
ondoko gelan: orruak edo aupak?
Oihuek kezkatzen naute egitan.*

*Ondoko gelan irriak edo mainak?
Begiratzera noa, ari naiz ikusten
itzali duten argi makalaz:
telebistan Dumbori so egon ordez,*

*saltoka sofán: biak ondo daude,
kilima egiten diet, barrez lehertuta;
guraso maitasuna, zein zaila den:
haiek jolasean eta ni beldurrak.*

I. TRIFASIKOA

Gereziondopean
korrika ilbehera
beste petalo bat da.

Hego haizeak
adarretan ilargia
kulunkatzen du.

Ilbete harroa.
Bibote luze hori,
hodei hari bat.

LORATEGI HESITUA (LAKU BAT MUNDUAN)

Yoga irakasleak eskatzen zigun
meditazioan irudika genezala
urrael bat. Urazala lausotu
ahala, gogoa eta arnasa
lasaitzen ziren.
Egungo Burtsa poetikoak
laku bat munduan
ez du asko estimatzen
baina ezagutzen duenarentzat
balio zehazkaitza izaten du:
isiltasun hogeit hamar horiek
leku segurua dira
(*hortus conclusus* delakoa)
non gure eskuak jolasten diren
elkarrekin, bata bestearen
laguna.

HARRITXOAK AHOAN

*Demostenesek eledertasunerako zuen
argimenak, mutil kozkorra zelarik
mintzatzen ez omen zekien eta; eta arte
horretan artaz lan eginez eta maisu
onei entzunik, munduko hizlaririk
hoberena bilakatu zen. Bereziki, Ci-
ceronek kontatzen duenez, ezin ebaki
zezakeela erre letra, totelxko zelako, eta
gero hagitz maina handiz heldu zen
hura artikulatzera, lehenago bizio hura
inoiz ukan ez balu bezala.*

(J. Uharte Donibanekoa)

STRIPTEASE

Poesiaren eta biluztasunaren
edo biluzteko prozesuaren arteko
harremanaz zer edo zer esan dute
batzuek, Juan Ramón Jimenezek legez,

baina botoi-zuloak botoien gainean jartzen
eta prakak askatzen ditudan bitartean,
bi marmoken antzera zoruan erorita
alkandora eta bakeroak geratu arte

barruko arropan (garbia)
eta kapela buruan (*in memoriam* Joe Cocker)
ez ezazu espero bihotza erakustea
edo beste barruko organo bat, irakurle,

larruzko laukiak banan-banan azalduz
orrialde bakoitzean kontuan hartzekoa
ez baita nik irakasten dizudan hori,
irudikatzen duzun ikasketa baizik.

POETIKA TTIIPIAK

“Bakoitzari berea”
esan zuten Erroman:
poema egitean
aurki iezaioak forma.

Hitzen campusean poetok
lan egiten dugun saila:
ikerkuntza ken
garapena gehi
berrikuntza.

Poeten artean inbidia ohi da
begirune seinalerik handiena.
Erremedio bakarra, harremana.

Zure bizitza, poeta,
zurea ez den bizitza hori
bizitzea da;
zure hitzetan, poeta,
bizitza, zurea ez dena,
bizitzea da.

HIZLARIEN TAXONOMIA

Multzo batean dituzu
gogoan testuan dutenak.
Hitzaldia irakurri egiten dute hauek
(eta beti azkarregi).

Beste multzoan ideiak gogoko dituztenak,
etengabe hitz egiten dute horiek
entzuleei begietara begiratu
(errepikakorrak).

Eta bien erdian naukazu,
powerpoint batekin elbarria.

ARRETA JARTZEKO GAITASUNAREN INGURUAN

Pentsamendu amerikarrear
biraketa ontologikoari buruzko
hitzaldiaren erdian

mila eta berrehun minutu eserita egon ondoren
–zer egiten dut nik hemen?–
nire buruari galdetzetik

gogamenean daukadan botoi hori
sakatzeraz pasa naiz
–bozgorailuen soinua itzaltzen duena–

eta gero nire ikaskide guztiak
gauza bera egin dutela
ohartu naiz,

denok gela honetatik
oso urrun jostaka gabiltzala
gogoaren Igeldo Mendian edo.

Hain izan da bitxia, beraz,
zein azkarrak eta ahobatezkoak
izan garen, nola egin dugun algara

Victor Cousin hemeretzigarren mendeko
Jacques Derrida izan zela
bota duenean hizlariak.

ZERU HAI EK

Atera eta hor,
Euskal Herritik kanpo,
Urdin Handia

hirurehun eta hirurogei
gradu ko ostertzean.

Hodeiak dira,
beren osotasunean,
kilometroak

tartean dozenaka
kotoizko zeppelinak:

cinemascopez.

MUNDURAKO BIDAIA

Eskularruen
barruan esku bero
hauek diote:

mundua zabala da
bai, baina ez da arrotza,

hegazkinetik
ikusita hiriak

ZERUAN LERRO BAT ERE EZ
(ZERBAIT GEHIAGO ITXAROTEN DUGULA)

Sumendi bat harrotu egin da
eta akabo bidaia,
makina orok huts egiten du
lan egunean edo jaian.

Autobusa itxaroten dugunoi
geratzen zaigu Islandia,
korrika egin nahi ez duenarentzat
ontzirik ez dago kaian.

*AIR FRANCE*KO MAGAZINE BATEAN

Galduta nago
eta ezin dut bereizi:

Iragarkiak
edo albisteak dira?

Hainbeste gazte eder
zergatik gose?

WISLAWA SZYMBORSKAREN ADIBIDE
BATEN INGURUAN

Asteburu oso hau
eman dut nire baitan
poema bat ahoskatuz.

Bisitari ikusezin
batekin bizitzea da.

Poema idatzi zuen
Nobel saridun batek,
poloniar ahoskaezina.

Bortizkeriari buruzko
poema horretan, ekaitzak
zuhaitzaren hostoak bart
erauzi zituen, guzti-
guztiak bat izan ezik
adar soilean bakarti
kulunka zedin lagata.

Ahoskatzen dudanean,
hostoa neu naiz, gripea
pasa ez duen bakarra,
eta zuhaitza bizitza
da, paperezko hostoekin.

Ahoskatzen dudanean,
Historiaren Aingerua
aurrera darama ekaitzak,

garrasika, aurpegia
iraganari emanda,
hegoak itxi ezinik,
katastrofearen hautsa
zerurantz igotzen dela,
zuhaitza eta hostoa
bat eginda,
frogatuz
poesiak gogoko duela
txantxetan aritzea,
batzuetan.

KRIMINOLOGIA

Arrazoi etikoengatik
mozkorra deitu zion.

Arrazoi estetikoengatik
itsu bota zion.

Arrazoi erotikoengatik
bortxatu zuen.

Arrazoi politikoengatik
erail zuen.

NEGUTIARRAK

Gori-gorian
zozoaren moko
hegan ta hegan:

ilunak eguzkia
harrapatzeko asmotan.

Haurrak errege:
elurra teilatuan,
lera lepoan

ibili beharko degu
aldapa gora-bera.

NO ROLLING STONE

Bolognako kale okre batean
teilatuko goroldioa bezala.

Eguzkiaren eta euriaren lagun,
sustrairik gabeko bizona batean.

Hego haizeak dakartzan lur hondarrak
sostengu eta janari nahikoa.

Teilak (etxearen ezkatat) dituzu
zure sorterriko muino gorriak.

Ez zaitez harria legez bizi. Izan
goroldioa baizik, goroldioa.

ASZETISMOA

un asceta inconsciente
(J. A. González Iglesias)

Hiru urte behar izan nituen
baina erretzeari utzi nion,
eguzkiari bira
tabakoaren bila.

Zortzi urte behar izan nituen
ardo beltza edateari uzteko
(orain garagardo bat
edango nuke, noski)

Hogei urtez saiatu eta gero
larrua jotzeari utzi nion.
Ohitura bitxiak
gizasemearenak.

Ez dira kentzen, ordezkutzen baizik.
Amodioak esan ohi du baietz,
iltze batek bestea
ateratzen duela.

Arnasa egiteari uzteko
zenbat urte pasa behar? Ez dakit ba.
Oraindik ez dut lortu
horren ordezkoren bat.

SATURNO ETA JUPITER

Handiak izan arren
laket zaie dantza
eguzkiarengan dute
planetek konfiantza
lasaitasunak ere
bertutearen antza
bizitzaren *qu'est-ce que c'est*
bere orekan datza.

M. L. REKIN BUELTAKA

Atletismoko pistan gau euritsu batean
ttipi-ttapa doala, azkarrago nabilela,
elastiko laranja, likrazko galtza beltzak,

euri tantak argien inguruan,
badabiltza orbita ezberdinetan
gure planeta elkartu gabeak.

Zer ote pentsatzen du asteazken honetan?
Egin duenarekin? Zapatila zuriek
txas-txas-txas-txas egiten duten doinuarekin?

Edo sentitu omen zuen zirraraz,
txapeldun izendatu zutenean,
presoei zuzendutako agurren artean?

Gizonezkoa ez den lehenengoa izan zara,
zure atzetik besteak: bertakoak ez direnak, agian
sortuko dira berriak.

HASIERAK

La preponderancia de la M se debe seguramente a que no hay mejor forma concebible de empezar una palabra: cerrando la boca.

(El País, 2009-08-30)

Maniakoak diren usoen begiek

Melokotoi heldu horien laztanak

Miguel Ángel Blanco, Mikel Zabalza

Mozorroak utzita baietz esan

Musika mexikarra bezain triste

APOLOGIA DEL AURRESKU

*No hay baile más ridículo para un hombre solo
que el sirtaki griego, si exceptuamos probablemente
el aurresku vasco.*

(J. Marías)

Todo iría mejor, dice *El amante de Lady Chatterley*,
si los hombres bailasen las viejas danzas desnudos
o vestidos con pantalones ajustados de color rojo.

Tengo mis dudas con el aurresku que aquí se baila
de blanco, con boina y generalmente por dinero,
un día de lluvia ante los recién casados,
otro ante un féretro cubierto de banderas,
otro ante el séquito de un presidente.

El placer, si hay placer, está más en verlo
que en la cara del que danza, inmóvil
de cintura para arriba, a quien no conviene
delatar la emoción o la menor sonrisa.
No es una incitación sino un homenaje.

Feudal y elegante, quien lo baila
se inclina como los palos de una *X* o una *K*,
hace círculos sobre el suelo con la punta del pie,
luego los agita como un pez para propulsarse
o levanta una pierna hasta alturas imposibles.

Como un niño tímido que no supiera
comunicar más que a saltos y sin moverse del sitio
su reverencia simétricamente compleja,
una ceremonia esencial y repetitiva
como la poesía misma,
quien danza eleva a quien mira
en ese vuelo breve y ridículo como la vida
antes de aterrizar sobre la tarima.

DEFENSE OF THE AURRESKU
(Translated by Elizabeth Macklin)

*There is nothing more ridiculous for a man to dance
solo than the Greek sirtaki, unless we may except
the Basque aurresku.*

(J. Marías)

Everything would go better, says *Lady Chatterley's lover*,
if men danced the old dances without any clothes on
or wearing tight-fitting scarlet trousers.

I have my doubts about the aurresku which is danced here
in white, with a beret on the head and mostly for money,
on a rainy day before the newlyweds,
another day before a coffin wrapped in flags,
another before a president's retinue.

The pleasure, if there's pleasure, lies more in seeing it
than in the face of the dancer, unmoving
from the waist up, for whom it's unseemly
to betray emotion or the slightest smile.
It is not an incitement but instead an homage.

Feudal and elegant, the person dancing it
bows like the shafts of an *X* or a *K*,
makes circles on the ground with the tip of a toe,
then moves them like a fishtail for propulsion
or raises a leg to impossible heights.

Like a shy boy who has no idea how
to communicate except by leaping and standing in place
his genuflection symmetrically complicated,
a ceremony both essential and repetitive like poetry itself,
the one who dances elevates the one who watches
in this flight that is as brief and laughable as life
before his feet so much as touch the platform.

ZIRIMIRIA ETA SARGORIA

*Balkoian dago
hurrekin gogaitua.
A ze beroa!
(Buson)*

ZRMR

The arin rain:
infinitesimala
den gure euria.

EUSKALTAOISMOA

Hustu dugun botilatik
Errioxako tantatxo bat
erori da paper honetara,

bere aldapa ñimiñoaz
ardoak irrist egin du
borobilaren barnean

eta sedimentuaren
jaitsierak *yin-yang* bat
osatu du moreaz,

gure ikur bihurtuta:

zirimiria batean,
sargoria bestean,
hanbursesak eta *sushia*,

freskura (ura eskutik
eskura) eta izerdia
(Ekiren zuku horia),

igandeko goiz ederrak
eta astelehenekoak,
euskara eta erdara,

behar-beharrezkoak biak.

HIZTEGIAK

Zure herrian, Elizabeth, munduko askotan bezala,
izenak eta izanak biltzen dituzten afixak
daude, eta gizonek nor den nor agintzen dute
honela izan behar duelako munduak: tximeleta
kristalezko kutxan dagoen bezain izengarria.

Zure herrian, Arantzazu, munduan gutxik bezala,
izaki bakoitzari bi izen ematen dizkiote
seinaleek, horrelaxe historiak eta nahiak
nahi izan dutelako bi hizkuntzetan bizi izan:
lurrealdea hiztegi bat bihurtuz, hitzak elkarri
lotuz eta besarkatuz.

Poeta baten ametsa.

Eta bi herriok nire herria?

GARATEKO BORDAN

Mapa batzuek iparraldean
(beste batzuek hegoaldean)
gaudela esaten digute eta

larre berde hauek
udaberriz epeltzen dira

ardi zuri horiek
azukre kristal aleen antzera,

larre berdeak ardi zuriak,
kanpai danbadak ilunabarrean.

LET'S CALL THE WHOLE THING OFF
(Ella Fitzgerald & Louis Armstrong)

Hika hitz egiten dun.
Zuka berba egiten dot.
Akabo dezagun hau.

Ezer ez, diot nik.
Deus ez, diozu zuk.
Akabo dezagun hau.

Euskadi diozu.
Euskalerra dinot.
Akabo dezagun hau.

Ezberdinak gara, diot.
Ez gara berdinak, diozu.
Akabo dezagun hau.

Espainia diot nik.
Estatua diozu zuk.
Akabo dezagun hau.

El Pís leitzen duzu.
Gaga irakurtzen dut.
Akabo dezagun hau.

Dena berdin da, zuk.
Denak berdin du, nik.
Akabo dezagun hau.

BAGERA! (ERRAUTSEKIN ZER EGIN)

Niretzat badago zerua
Donostian bertan izango da:
nire erlijioa, Kontxako Badia
(batez ere olatuen artean).

ZERURAKO BIDEZIDORRA

Donostia eskola handi bat da
baina gaur ez noa. Nahiago ditut
Urbiako zelai zabal hauek,
Arantzazuko balkoitik igo eta
gero, lizarren arteko bidexka
hartu, itzalpean dagoen mahai bat,
lanarekin nahastutako sagar
ur hori edan, hau zeruko bidea...

nire paradisuaren irudia
ikur petral hori izango ez balitz.

MADRILGO METROAN ETORKIZUNAREN
INGURUAN ENTZUNDAKO ABISUAK

Belardi (Prado),
Begarako Printzea,
Lauhaizeta.

Hurrengo geltokia:
Arenaleko Gaina.

Begoña, Bilbao,
Nazioen Soroa,
Landa Etxea.

Hurrengo geltokia:
Kristalezko Itsasoa.

Laubidieta,
Estatuen Parkea,
Estua, Izarra.

Hurrengo geltokia:
Zinemaren Hiria.

Itxaropena,
Komunikazioaren
Erronda, Legazpi.

Hurrengo geltokia:
Hegoaldeko Atea.

Deliziak, Lakua,
Portuko Auzoa,
Enbaxadoreak.

Hurrengo geltokia:
Lerroz-lerro Hiria.

Kanpamendua,
Antonio Machado,
Prosperitatea.

Hurrengo geltokia:
Eguzkia.
Banoa.

NATAZKO BESTE TARTA BAT
NIETZSCHEREN AURPEGIRA

Bai, Zaratustra, baina entzuidazu:
ez dut izar dantzari gehiagorik nahi,
bi ditut-eta, neska ta mutila,
nire baitan dudan kaosa ez dut
atsegin, etxea jaso behar dugu,
erditze oinazea pasatzen baita,
baina haurrek afaldu behar dute.

OKERRENAK

Ez dira atzerritarrak
baizik eta
gurekiko dituzten
fantasiak:

Dantzan eta kantuan Pirinioen gainean.
Munduko sukaldaririk onenak.
Europako herririk zaharrena.
Hizkuntz sekretuaren jabeak.
Menperaezinak. Azken indioak.
Nobleak. Odolzaleak. Bakailaoa.

Eta gu, euskaldunak
izateko abominazioaren
desolazioa.

HEMEN NAGO

Arratsaldea

gogamenaren gauza
bihurtu zaigu

itsaso blua mantso
lurrerantz sartu ahala

badian, kaian,
Pasaiaiko portuan,
leioa irekiz

txatarraren usain
hezea sudurrean

eskuok ditut
teklatuaren gainean
esposatuta

banintz bezala nago
honatx nire errua:

antzinako legea ez dut ikasi
aitaren zera ez dut defendatu
bizitza emanda pantaila batean
entropia eta elebakartasuna
ez ditut sekula gaindituko

baina hemen nago,
mendeen itsasbeherak
utzitakoan,

eta ez noa inora
gure etxera ez banoa.

JACQUES DERRIDAREKIKO ELKARRIZKETA
ARGITARATUGABEA, 1982

Ez da erraza, ez, inprobisatzea,
izan ere, gauzarik zailena da.
Kamera edo mikrofonoaren
aurrean, bat-bateko jarioan,
bentrilokuo zabilta, besteek
zure orde z ahoskatzen dituzte
aurretiko eskemak eta mintzairak...
inprobisazioan sinisten dut,
inprobisazioaren alde dihardut.
Baina ezina delakoan nago.

KARNABAK

Adar arteko mugimendua
eguzkitxoak bailiran,

txori hauekin topo eginez
gero ez dago ahazterikan,

zuhaitz batean saltoka pozik
ez dute egin nahi hegan,

zergatik beren bila gabiltza
beste literaturetan?

SUB-18

Hiriak eta hiriak
eta bat-batean...
ra! mendiak.

Ardo berbera
eta kopa berbera.
Baina bestela.

Tximista bertan:
Windowseko leihoak
hutsaldu dira.

TESTU IRUZKIN OSATUGABEA

—Geratzen gara [...] Holaxe. Horretan, esandakoa [...] Deitukotzut. Mobila daukat, edo mezu bat [...] Geratzen gara. Egidazu *perdida* bat, horrelaxe ba [...] ez, orain etxe-kolanak bukatu behar [...] bai, literaturakoa, biharkoa [...] bale ba, patxo bat.

[Mis Documentos > Anerenak > Idazlanak > miguel-dors.doc]

Liburu pare bat eta ohar-koadernoan alboan dituela, tep-tep-tep hasi da idazten:

1. Testuingurua

Ikasgaiaren gidaliburuan agertzen den lez, testua irakurri dut bi aldiz, eta hitz-gako eta pasarte mamitsua-goak azpimarratu ditut. Poema honek “*Made in Pakistan*” izena du, 44 lerro ditu, bi ahapalditan banatuta. Lehenengoan, poeta mintzatzen zaie erosi berria duen alkandora egin zuten “esku pakistandar” ezezagunei. Bigarren ahapaldia askoz motzagoa da, eta orain poemari berari diotso egileak: “Ene kantua hau, ibiliko zaren leku orotan / jakinarazi ezazu nire orduen artean bazegoela bat / non merkealdietan erositako alkandora batean / bizitza oro Bizitza bera dela ikusi nuen.”

Orain arte egilea ez nuen ezagutzen; gaztelaniazko Wikipedian irakurri dudana arabera (euskaraz ez dut deus aurkitu), M|

Mugikorrak txalaparta-doinu ttiki bat egin du. Di-da batean mezua begiztatu [zmdz? atrk ga? 8tan bulen] eta hatz puntekin erantzun du [ok mx].

Alde formalei begira, hasieran, ematen du poema bertso askean idatzita dagoela, baina kontuz erreparatuz gero, bertso-lerro guztiak endekasilaboak, heptasilaboak edota alejandrinoak direla konturatu naiz. Ez dago errimarik, lerroen amaieran bederen. Azken bertsoak ikasgaiaren hasieran jorratutako Garcilasoren *canciones* batzuk gogorarazi dizkit, zeren eta bere I., II. eta IV. kantuak *envoi* batekin amaitzen baitira, poemari berari zuzendua dena. Orijinaltasuna handia, beraz, ez diot antzematen.

2. Analisia

Gaiari begira, J. L. Borgesek idatzitako poema baten antza du: poetarena den objektu bat deskribatuz (makila lakatu bat, Borgesen kasuan; alkandora arrunt bat, honetan), objektuaren egileari buruzko jakinmina sentitzen du poetak, baina eskuak |

Pantailaren eskuineko bazterrean dagoen gutunazalaren ikurra dir-dir egiten ari da. Han klikatu eta beste leihtila bat agertu da, baina laster itxi egin du neskak, mezua erantzuteke utziz, eta berriro ekin dio idazteari, tep-tep-tep-tep, are azkarrago, hitz bat hautatuz, ezabatuz, berri-datziz.

eskuok norenak dira? Poeman agertzen den emakumearenak? Edo mutil batenak, “handiegi zetozkion / alkandora eta begiak” hori? Ia-ia konturatu gabe mendebaldeko alkandoratik ekialdeko alkandora batera pasa gara. Mugimendu horrek nolabait gogorarazi dit etika klasean irakurritako testu bat, Richard Rorty-k idatzia, non filosofo horrek elkartasuna gugandik oso ezberdinak diren pertsonak |

Etxeko beste gela batetik datorren blo-blo-blo-blo dei hotsarekin batera, salto batez altxatu eta logelatik irten da. Kablerik gabeko telefono batekin hizketan itzuli da:

—...*que no, ama, que la tienda cierra a las nueve [...]* una blusa [...] *¡pero si no tengo nada!* [...] *y además lo de mi cumple [...]* *¿a que bai?* [...] bale ba, agur.

Berriz ere eseri da molusko erraldoiaren antza duen ordenagailuaren aurrean.

“gu”tasun kategorian sartzeko gaitasun moduan ulertzen duen |

Berpiztu egin da pantaila bazterrean dagoen gutu-nazalaren ikurtzua. Hasperen eginez, ez ikusiarena egin du. Duda-mudan baina presaka, altxatu eta armairu barruan desagertu egin da; handik gutxira atera da lisatutako arropak eskuan dituela. Alkandora txuri bat, apropos urratutako bakero urdinak. Ohiko entrenamendu saioan dabilen kirolari bat bezain bizkor, beste arropak erantzi eta berriak jantzi ditu. Juxtu orduan mugikorra deika hasi da: ez du hartu, eta bigarren deialdirako isildu da. Pantaila teklatuaren kontra tolestuz, ordenagailua klak batez itxi du. Gelako atea ere, klak, itxita, alde egin du.

EUSKAL POETAK EUSKALTEGIRA

dakidalako irauten duela orainak ere geroan

(X. Lete in memoriam M. Laboa
in memoriam P. Hipolito)

AMETSEAN

A... azkenean loak hartu nau.
Esnatuta mundua hain zen neketsua.
Eta beti zerbait egiteke.
Gaueraino astiro joan da eguzkia.
Legeak eta kausak ere badoaz.
Oinez ibiltzeko erokeria.
Etzanda hegan ez egitea.
Laneguneko errima eta neurria.

Hemen dator Heraklito, iluna.
Bihurgunetsu den Van Goghen lana.
Zango astunez hormak zeharkatzen ditut.
Beso lokartua eta biok gara.
Orain esnatu da nire gorputza.
Kaixo, Izen Barik; Antonio, Adio.

LO KULUXKA

Sofan etzanda
erdi lotan nagoela
hiru urteko alaba

nire aurpegiaren gainean
jarri da, *aplastadizas*

(hori baita
jolas honi ipini
genion izena)

larruz estalitako
nire kaskezur zaharra

barrez barrezka
bere haragi goxoaren
baitan bildu du

eta bere bihotz erreka
xuxurlatzailea entzunez

nire alabaren
jaio gabeko haurra
bilakatu naiz

eta hasi naiz bere ama
hizkuntzaz mintzatzen.

LUKAS ORTZIBILTARIAK
BERE HERIOTZA IGARRI DU

Hiltzen naizen egunean ere
hizkuntza hau ikasten
ariko naiz.

Hizkuntza aldrebes hau,
Yoda Jedi maisuak
irakatsitakoa.

ZORIONEKOAK HAUREN
MODUKOAK ZARETENOK

Zorionekoak bosgarren hizkuntza ikasten ari zaretenok,
haurren modukoak baitzarete.

Zorionekoak laugarren hizkuntza ikasten ari zaretenok,
poesia zer den ikasi baituzue.

Zorionekoak hirugarren hizkuntza ikasten ari zaretenok,
elebidunak baitzarete.

Zorionekoak elebidunok,
mundua izendatzeko bi manieratan partaide baitzarete.

Zorionekoak euskaldunok,
erdal hizkuntza bat (gutxienez) ikasi baituzue.

Baina zorigaitza zuei, elebakarrak;
zuentzako kalte.

ALVARO DE CAMPOS EUSKALTEGITIK
ABIATZEN DA TABAKO DENDARA

Ez dakit ezer.
Inoiz ez dut jakingo,
ezertxo ere ez.

Ezin dut deus ikasi.
Hortaz kanpo, munduko
agiri oro ditut.

ALVARO DE CAMPOS SAI DO *EUSKALTEGI* E VAI
A TABACARIA

Não sei nada.
Nunca saberei nada.
Não posso querer saber nada.

À parte isso, tenho
em uma gaveta
todos os diplomas do mundo.

JOSEBA ESPINSARENA

Homo liber de nulla re minus, quam de morte cogitat
(*Ethica* IV, LXVII)

Euskaldunberri baten gogo
euskaltegira itzultzen da beti:
bere kondena itxarotera
kondenatua dagoelako.

Etxeko geletan ikasle eta
irakasleekin gurutzatzen da:
elkarrizketa bakoitzean
berarentzat azterketa bat.

Hitz bat entzutearekin batera
datorkio ikasteko unea:
denbora luzea behar da
izan zena ezabatzeko.

Pausu sosegatuz hildakoek
sartu-irtenak egin dituzte:
beren nahia gure desioetan
cameoak gure filmetan.

Euskaldunberriaren gogo
alaia izan bedi honengatik:
dena bikoitza egin dezake
bere bizitza bakarrean.

ESKU BIEZ

*Esku beldurtia beste eskuaren bila doa lasterka.
Beste eskua ere beldurrez beterik dago.*

(J. K. Igerabide)

Euskara ez dakitenek
euskaldun izateari begiratzen diotenean
prestigioa, boterea, erraztasunak, herritasuna etab.
ematen dituen eskua ikusten dute.
Eta beldur diete euskaldunei.

Euskara dakitenek
euskaldun izateari begiratzen diotenean
nekezia, lana, zailtasunak, herrimina etab.
ematen dituen eskua ikusten dute.
Eta beldur diete erdaldunei.

Eta nik,
eskuak hutsik dauzkat
eduki gabe emateagatik.
Baina koplak dioen bezala:
eskuok nireak dira.

KANTU ISLANDIAR BAT ENTZUTEN

Aspaldi entzundako ergelkeria batek dio
sentimenduak ezin direla deklaratu
ama hizkuntzaz ez badira.

Ez dakit ba zergatik hain malenkoniatsu
jarri nauen musikak hogeituz
hodei arrosa horri begira nagoela.

Agian Islandiako Konstituzioak
ez duelako agintzen islandiarra
hizkuntz ofiziala denik.

Bat-batean gogoratu naiz
islandiar hizkuntza ikasteko
desioa sortu zitzaidan unearekin.

Zerbait sentitu nuen han,
Keflavíkeko aireportu haizetsuan
sehaskan lo zegoen haurrari so
(gurasoek hipotermiari beldur).

Zerbait sentitu nuen han,
Reykjaneseko belardietan,
ilargiak barre egiten ziela
irailean etorri zirenei.

Zerbait sentitu nuen han,
Tjórinn laku izoztuaren ondoko hilerrian,
denboraren poderioa
neurtu ezinean.

Zerbait sentitu nuen han,
Hofsvallagata kalean zegoen
saltxitxa salmenta postu itxian
eguzkia zerumugan zetzala.

Zerbait sentitu nuen han,
Vesturbaer igerileku lurrintsuan
ur berotan
hegazkinei begira.

Zerbait sentitu nuen han,
Reykjavík osoari arrain usaina
zeriola, eta ni euskal
aditzak ikasten ari nintzela,
orain hau idatz diezazudan, nire Islandia
gure hizkuntza baita,
arrotza bezain ederra.

BILLY COLLINSEN LIBURU BATEAN

*Euskara hizkuntza umezurtza dela diote.
Hizkuntzalariek ez dakite
zein hizkuntzek sortu zuten.*

*Umezurztegiko leiho luzetik
Ingelesari so egoten zaio hilerrirako bidean doala
bere gurasoen hilobiak bisitatzen,
Latinaren eta Anglosaxoiaren hilobiak.*

Euskararen adiskide handikoteek,
Gaztelarak eta Frantsesak, ia ez diote lekurik uzten
korridorean dagoen metalezko armairu grisean.

Euskarak hasperen egin du, baita irribarre ere,
tiraderan gordeta zerbait duelako:

Ingelesari ostutako
(itzultzeko asmotan, musu-truk) poema hau, alegia.

MAITALE ELEBIDUNA

Hainbeste lengoia probatu ondoren
funtsezko gauzak ez dira aldatzen.
Zalantzak izan ditut. Nortasuna
deklaratu behar. Aita, senarra
izan naiz, ona edo txarra,
betikoa.

Aginte esaldi luze horiek
egiteari utzi diot. Ordez,
keinuak, ikonoak, leihoak
erabili behar izan ditut
baina betiko *hardwarea* daukadanez,
munduak ez du ikusi aldaketa
handirik, bizitza aurrera doa
bakarrik
z eta x gehiago
agertzen direla nire hizkeran.

PC ala Mac erabili,
zenbat aldiz gelditu da sistema?
Berriz abian jarri eta kito.

FRESNOS

Nola dute izena zuhaitz horiek,
fraide itxura duten pinu haiek ez,
baizik eta aurrean ditugunak
leihoa acuarium bat balitz bezala
maiatzako haizeak (ur korrante bat)
adarrak astintzen dizkiela,
itsaso ikusezineko algak
diruditen horiek, zuhaitz horiek,

musika isila zuhaitz horiek
hosto kriskitinez jotzen dutela,
dantza egiteko irrikan daudela,
abuztuan behiek inguratuta,
behiak zutik heltzeko nahian
iparraldeko jirafen moduan
ahuntzei kentzeko ahaleaginean
hosto-argiz betetako zuhaitz horiek?

Atera nintzen
txiza egitera.

Ikusi nuen
ilargi horia.

Ahoa bete hortz
geratu nintzen.

Ahoa bete hortz
han baitzegoen.

Zera esan zidan
(a ze iskanbila):

Trikuarena
ezbehar bat zen.

Nire zikloak
hogeita zortzi
egun behar ditu.
Hogeita zortzi

aditzak dira
egun arrunt bat

bizi izateko
behar duzuna.

Hitz kopurua:
hogeita zortzi.

Ez gutxiago
eta ez gehiago.

TXERRIAK TXERRI

Hegoak erantsi dizkiote
eta txerria hegan
ikusi dugu gaur.

Posible da.
Gogoan eduki
posible dela

txerri eleaniztun
hegalariak
izatea.

Eta posible izan zedin
norbaitek posible izan litekeela
sinistu behar izan zuen,

hori ere
txerriak txerri
gogoan eduki.

BETIRAKO

Nafarroa Behereko Bastidan
badago kanposantu judutar bat,
17. mendekoa.

Gerra garaian profanatu zuten
baina hala ere han dirau gaur egun,
ihintza burdin langaren gainean.

Betirako da dena, maitea.

Segovian badago herri txiki bat
Anaya izena duena, Anaia
izeneko batek sortua dena.

Baseliza bat ere badaukate,
Oñez-eko Ama Birjiñarena,
euskarazko hitzak oraindik ere.

Dena betirako da. Edo ia
betirako da dena, maitea.

ZEN MEDITAZIOA

Ez naiz inoiz egon Cluny aldean
baina Françoisek esan didanez,
munduko katedralik handiena
eraiki zuten han hamabigarren
mendean, eta Iraultzaren ostean
harriz harri birziklatu zuten:

handik hogeitaz urtera, ordea,
ez zen arrastorik gelditzen.

Horregatik otoitz egin behar diet
Andra Mari Anbotokoari,
On Bosco magoen patroari,
deklinabidearen Budari,
nor-nori-nork trinitateari eta
aditz laguntzailearen jainko txikiei,
ergatiboa gal ez dezadan.

Horregatik behar dut mantra bakar hau:
ez etsi.

Atentatuak direla,
mingaina egurrezkoa dudala,
harritxoak ahoan ditudala
ez dut ahaztu behar euskararen
kontu hau *zen* bat dela, alegia:

esaten dudanari arreta
jartzeko meditazio ariketa,
esfortzurik gabeko soiltasuna.

2. TRIFASIKOA

Atzo ilberria,
gaur zesta-punta:
euskalduna ote?

Gora ilgora:
emakume haurdun
baten sabela.

Rugby zelaian
hiru laurdenekoa
ilargia da.

TOMÁS SEGOVIAREKIKO AMAIERA

*Lagun enigmatiko hori
Nire baitan makurtzen den hori
Itzali izan ditudalarik
Nire barneko argi guztiak
Eta nirekin geratzen da kieto bilduta
Deus ez pentsatu baino nahi ez duela
Ez bada goxo-goxo itxarotea
Harik eta nire gainean atzetik harrapa nazan arte
Loak bere olatu erraldoian
Eta hondartza honetatik eramanez nazan
Beste nonbait flotatzera
Ziur ez dut inoiz jakin
Lagun horrek benetan merezi duen
Baina azken finean ia beti
Berarekin joaten naiz.*

ENVOI

Pasa da zirimiria,
sargoria igaroko da.

Bitartean, zer esan?
Hor doa nire kuttuna,
aurpegia garbituaz:

Xaboizko punpuila bat
jendearekin topo egitera.

ESKER ONAK

Arte Ilunen Aurkako Defentsako nire irakasleei (Aran, Jonas, Añes), lehenengo irakurleei (Javier Agirre, Belen Altuna, Hasier Larretxea eta Kepa Lucas), Ermuako eta Lasarte-Oriako herriei, eta haien literatur lehiaketako epaimahaikideei.

Angel Errori, buruz buru hitz egin ahal izan diodan poeta eta kritikoa mirestuari, emandako bulkadagatik.

Ur Apalategiri, babesagatik eta egindako editore lan finagatik.

Anna Ajmátova, “Alejandro en Tebas”, *El canto y la ceniza* (Galaxia Gutenberg, Bartzelona, 2005).

Hiztegiak Elizabeth Macklinentzat idatzitakoa da.

Garateko bordan eta *Betirako* poemak Etxeberria-Zabala sendiarentzat dira.

Wisława Szymborskaren adibide baten inguruan Ana Goriarentzat da.

Oporrak poema da El Nacimiento cortijoko María eta Adolforentzat.

Testu iruzkin osatugabea: mikroipuin honek 2009ko Kontakizun labor solidarioen lehiaketan akzesita eskuratu zuen EHUren %0,7 Elkartasun Fondoak antolatua. Esker mila Agustin Arrieta Urtizbereari.

Zenbait poeteei buruzko abisua irakurleari poemak honako bibliografia hau dakar: Carlos Marzal, “Por si no lo sabías”, *Los países nocturnos* (Tusquets, Barcelona, 1996); Miguel d’Ors, “Epílogo”, *Hacia otra luz más pura* (Renacimiento, Sevilla, 1999); Angel Erro, “Irakurlea”, *Gorputzeko umoreak* (Alberdania, Irun, 2005).

Billy Collins, “Etymology”, *The Apple That Astonished Paris* (University of Arkansas Press, Fayetteville, 1988).

Fresnos poema Roberto Etxeberriarekin solasaldi batean gauzatu zen; *Karnabak*, berriz, Debra Kang Dean eta Enrique García-Máiquezekin batera ikusi nituen .

Guraso maitasuna bertsoaren jatorrizkoa: “A Parent’s Love”, *The Essential Gabriel Fitzmaurice* (Mercier, Cork, 2008).

Tomás Segoviarekiko amaiera: jatorrizkoa bere *Aluvial* deituriko liburuan (Pre-Textos, Valencia, 2009).

EGUNERO IRAKURTZEN DELAKO

BILDUMA

1. Ur Apalategi: *Gure gauzak S.A.*
2. Monique Laxalt: *Oroitzapen urdin iluna.*
3. Fito Rodriguez: *Faustoren itzala.*
4. Ibai Iztueta: *Oro bare.*
5. Txomin Peillen: *Jende ederrak lanean.*
6. Aurelia Arkotxa: *Fragmentuak.*
7. Karlos Linazasoro: *Esan gabe doaz.*
8. Antonio Casado da Rocha: *Esku ezkerrez.*